



2013KO APIRILAREN 12KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko apirilaren hamabian, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2013ko martxoaren 22an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 15 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMABI MILA LAUEHUN ETA LAUROGEITA HAMAHIRU EURO ETA LAUROGEITA HAMAIKA ZENTIMO (32.493,91 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Elbarrituen garraioa.- Gureak Tailerretara joateko garraioa ordaintzeko dirulaguntza ematea ondorengoei:

- 13-17-01 zbk.dun esped.: urte osorako 400,51 € ematea, hau da, hilean 36,41 € abuztua izan ezik.
- 13-17-02 zbk.dun esped.: urte osorako 400,51 € ematea, hau da, hilean 36,41 € abuztua izan ezik.
- 13-17-03 zbk.dun esped.: urte osorako 400,51 € ematea, hau da, hilean 36,41 € abuztua izan ezik.
- 13-17-04 zbk.dun esped.: urte osorako 400,51 € ematea, hau da, hilean 36,41 € abuztua izan ezik.

Adin txikikoen balorazioa.-



- 13-15-01 zbk.dun esped.: balorazioa egitea bertan bizi diren adin txikikoak arrisku eta babesgabetasuneko egoeraren larritasuna baloratzeko. Honetarako aurrekontua 715,00 € da.

IV.- SAN PRUDENTZIO JAIEN EGITARAUUA .-

Jarraian 2013ko San prudentzio jaien egitaraua eta bere aurrekontua aurkezten dira Tokiko Gobernu Batzarrera, bere onarpenerako.

Aurtengo San Prudentzio jaiak apirilaren 26an hasi eta maiatzaren 1 arte izango dira Lazkaon eta maiatzaren 4 eta 5an Lazkaomendin.

Jaien aurrekontua, guztira, LAUROGEITA HIRU MILA BERREHUN ETA HOGEITA SEI EUROKOA (83.226 €) da.

Tokiko Gobernu batzarrak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako guztien aldeko botuekin, 2013ko San Prudentzio jaien egitaraua eta aurrekontua, bere espedientean aurkitzen direnak, onartzea erabakitzen du.

V.- TXOZNA ETA TABERNAK SAN PRUDENTZIO JAIETAN .-

Jarraian festetan irekitzen diren taberna eta txoznen gaia aztertu eta eztabaidatzen du Tokiko Gobernu Batzarrak.

Txozna jartzeko eskari bakar bat egon da, Iker Iruin Arrutik Txozna Batzordearen izenean aurkeztutakoa. Eskarian karpa bat jarri nahi dela adierazten da.

Honen aurrean, eta gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin,

- 1.- Iker Iruin Arrutiri, N.A. zbkia. 72.451.507-A, Txozna Batzordearen izenean, txoznetarako karpa jartzeko baimena ematea.
- 2.- Txozna jartzeko baimena emandakoari jarraian adierazten diren baldintzak ezartzen zaizkio:
 - Txoznen karpa jartzeko kokalekua barraken gunea eta ikastolaren tarteko gunea izango da.
 - Txoznen karpa jarri eta kentzeko muga egunak apirilaren 19a eta maiatzaren 6a izango dira.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

